

ELKARTEK PROGRAMA: ARLO ESTRATEGIKOETAN ELKARLANEKO IKERKETARAKO LAGUNTZAK (EUSKO JAURLARITZA) (2015/07/29ko EHAA)

Xedea

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea osatzen duten ikerketa, garapen eta berrikuntzako erakundeek egindako Elkarlaneko Ikerketa sustatzeko laguntzak (ELKARTEK Programa), Euskadiko 2020rako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean jasotako espezializazio-esparruetan jasota dagoen bezala.

Diruz laguntzeko proiektu motak:

	ELKARLANEKO FUNTSEZKO IKERKETA	INDUSTRIA POTENTZIAL HANDIKO IKERKETA	INTERES BEREZIKO EKINTZA OSAGARRIAK
ESKATZAILEAK	Lankidetzak, gutxienez, ZTBESko hiru eragile mota ezberdinen artean	ZTBESren I+Gko enpresa-unitateek gidatuta (Banaka edo beste eragile batzuekin elkarlanean)	Berrikuntzako Bitarteko Erakundeak (Banaka edo beste erakunde batzuen arteko lankidetzan)
MOTA	Funtsezko ikerketa ezagutza handitzeko	Funtsezko ikerketa orientatuko proiektuak edo industria ikerketakoak	Azterlanak egitea, lankidetzak aldeztzea, etab. (kontsultatu deialdiko 3. artikulua)
LEHENTASUNEZKO ARLOAK	a) Energia. b) Manufaktura aurreratua. c) Biozientziak eta osasuna	Begiratu ZTBP Euskadi 2020	
UPV/EHUko SAIL ETA INSTITUTUEN PAPERAK	Lider edo parte hartzailea	Parte hartzailea soilik	Modalitatetik kanpo
IRAUPENA	Bi urte (2016-2017)	Bi urte (2016-2017)	Bi urte (2016-2017)
AURREKONTUAREN EZAUGARRIAK	Gutxienez 500.000 €; 50.000 € erakunde bakoitzeko	100.000 € gutxienez; 50.000 € erakunde bakoitzeko	100.000 € gutxienez; 50.000 € erakunde bakoitzeko
DIRUZ LAGUNDUTAKO AURREKONTUA	%100a	%100a (Funtsezko ikerketa) %50a (industria ikerketa)	%100a (Funtsezko ikerketa) %50a (industria ikerketa)
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	Kontsultatu deialdiko 12. artikulua		

GARRANTSITSUA: Erakunde eskatzaileek laguntza-eskabidea aurkeztu ondoren hasitako proiektuak bakarrik lagunduko dira diruz.

Definizioak:

ZTBEEKren Kidea:

- ✓ **Zerrenda:** <http://www.spri.eus/euskadinnova/eu/berrikuntza-teknologikoa/zientzia-teknologia-berrikuntzaren-euskal-sarea/382.aspx>

I+Gko enpresa-unitatea: nortasun juridiko propioa duten erakundeak, irabazte xederik gabekoak, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza izan eta beren jardunik nagusia bertan garatzen dutenak eta entitatearen enpresa titularren interesak asetzeko xedez teknologia eta berrikuntzak sortzeko eta garatzeko jardunak burutzen dituztenak hain zuzen. Nortasun juridiko propioa izan behar dute entitate hauek eta, beren sorreran, enpresa batek edo enpresen baterakunde batek parte hartu ahal izango dute, baterako ikerketa eta garapen proiektuei ekin ahal izateko.

- ✓ **Zerrenda:** <http://www.spri.eus/euskadinnova/eu/berrikuntza-teknologikoa/zientzia-teknologia-berrikuntzaren-euskal-sarea/enpresatako-unitateak/388.aspx>

Berrikuntzako Bitarteko Erakundeak: izaera publiko edo pribatua duten erakundeak; nortasun juridiko propioa dutenak eta irabazte xederik gabekoak, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza izan eta beren jardunik nagusia bertan garatzen dutenak eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako eskaintzak dituzten Zentroen eta enpresen arteko bitartekaritza jardunak burutzen dituztenak, bai eta berrikuntzarako jardunei laguntzeko hainbat zerbitzu espezifiko eskaintzen dutenak ere. Horrela, sistema soziala indartu eta zientziaren eta teknologiaren arteko elkarlana sustatzen dute, berrikuntzarako prozesuak hedatu eta gehiengoarengana hel daitezten.

- ✓ **Zerrenda:** <http://www.spri.eus/euskadinnova/eu/berrikuntza-teknologikoa/zientzia-teknologia-berrikuntzaren-euskal-sarea/berrikuntzako-bitarteko-erakundeak/391.aspx>

Eskaerak aurkezteko epea

2016eko **otsailaren 26era arte 12:00etara arte.**

UPV/EHUko IZAPIDETZA:

- **I. Eranskina I** aurkezteko azken eguna: **2016ko otsailaren 5a**
Bizkaiko Campusa: igz.deialdiak@ehu.eus
Gipuzkoako Campusa: igz.gipuzkoadeialdiak@ehu.es
Arabako Campusa: igz.arabadeialdiak@ehu.es
- Dokumentazio bidaltzea igz.deialdiak@ehu.eus helbidera: **2016ko otsailaren 19a.**
- Deialdiaren amaiera: **2016ko otsailaren 26a.**

Hala egin ezean, Ikerketaren arloko errektoreordeak eskaera sinatu ezin izateko arrisku handia egon daiteke .

Eskabideak aurkeztea:

Eskabideak hobe da telematikoki aurkeztea <https://www.spri.es/idi/idi> web gunean eta 30/92 Legean zehaztutako bideetako bat erabiliz, edo, bestela, Zuzenean Herritarrentzako Arreta Bulegoetan.

Eskaerarekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da proiektu bakoitzeko:

a) Proiektuaren eragile liderrak honako hauek aurkeztuko ditu.

- 1) Eskabide-orria, eragile liderrak eta parte hartzen duten gainerako erakundeek sinatua (TC1).
- 2) Proiektuaren memoria tekniko-ekonomikoa, paperean eta euskarri elektronikoan.

b) Erakunde parte-hartzaile guztiek (eragile liderrak barne) honako hauek aurkeztuko dituzte:

- 1) Proiektuan parte hartzeko inprimakia (TC2).
- 2) Eragilearen jarduerari buruzko oinarritzko datuen deskribapen-memoria.
- 3) Eskabidea egin behar duen pertsonaren ordezkartza-ahalordearen kopia.

c) Honako alderdi hauek egiazkoak direla egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena (TC3):

- Beste instituzio publiko edo pribatuei proiektu berarentzat eskatutako eta/edo haiengandik jasotako laguntzen zerrenda.
- Erakunde eskatzailea zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta ez dagoela, eta hartarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean ere ez dagoela, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, 4/2005 Legearen (otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerakoa) Azken Xedapenen arteko seigarrenean xedaturikoari jarraikiz.
- Europar Batasunaren Batzordeak aurrez emandako erabaki baten ondorioz, merkatu erkidearekin bateraezin eta legez kanpokotzat jotako laguntza itzultzeko agindua bete gabe duen enpresa edo erakundea ez izatearen erantzukizunpeko adierazpena.

Industria-potentzial handiko ikerketa-proiektuetarako laguntza-eskaeren kasuan, pizgarri-efektuari buruzko adierazpena aurkeztu beharko dute erakunde eskatzaileek, hala ezarrita baitago Europako Batzordearen 651/2014 Erregelamenduko 6. artikuluan.

Erakundearen datuak:

Eskabidea bete ahal izateko beharrezkoak diren erakundearen (UPV/EHU) datuak dira:

- **IFK:** Q4818001B
- **Helbide soziala:** Barrio Sarriena, s/n
- **Posta kodea:** 48940
- **Herria:** Leioa (Bizkaia)
- **Legezko ordezkaria:** FERNANDO PLAZAOLA MUGURUZA
- **NAN:** 72.430.200A
- **Kargua:** Ikerketaren arloko errektoreordea
- **Ahalorde notarialeko data:** 2013-01-09

Diruz laguntzeko gastuak

- ✓ **Proiektuan zuzenean arituko diren langileen gastuak (ikertzaileak, teknikariak eta laguntzaileak), kostu zuzenak nahiz zeharkakoak barne.**

A- Ikertaldeko kideen tarifa. (Ikusi bertoko langileen tarifa)

**B- Proiektu honen organikoarekin kontratatutako ikertzaileak (kostu zuzena),
Urteko ordu muga 1.592:**

(Proiektua onartu eta gero proiektuaren kargura kontratatuko diren ikertzaileengatik justifikatu ahal den kostuari dagokien tarifa hauek)

- **Arduraldi osoko PIK ez doktorea. Orduaren kostua: 24,50 €**
- **Arduraldi osoko PIK doktorea. Orduaren kostua: 27,80 €**
- **Prestakuntza bidean dauden ikertzaileak praktika kontratu fasean: 14,94 €**
- **ZTBLko 21. artikulua bitartez kontratatutako ikertzaileak, urteko kostua**
 - 1. eta 2. Urteak. Orduaren kostua: 11,45 €
 - 3. eta 4. Urteak. Orduaren kostua: 14,40 €
- **ZTBLko 22. Artikuluaren bitartez kontratatutako ikertzaileak. Orduaren kostua: 26,85 €**

***OHAR GARRANTZITSUA:** Langileen gastuen barne, UPV/EHUk soilik erabili ahal izango du zeharkako gastua beren langileentzat, horren langileen kostu zuzena ezin izango du inola ere ez finantzatu. Berriz, proiektua egiteko kontratatutako langileen tarifa kostu zuzena izango da.

- ✓ **Ikerketa-proiektuaren zati batzuk azpikontratatzeko.**
- ✓ **Aholkularien zerbitzuak eta antzeko beste zerbitzu batzuk. (Auditoriaren kostutik, gehienez 1.500 euro lagundu daitezke diruz, proiektu eta erakunde onuradun bakoitzeko).**
- ✓ **Ikerketa-jarduerak zuzenean eragindako beste gastu batzuk (materialak, horniketa, bidaiak, eta abar).**
- ✓ **Patenteak erregistratzeko eta mantentzeko gastuak eta/edo jabetza intelektuala babestekoak.**
- ✓ **Amortizazio-gastu hauek: azpiegitura sortzekoak eta ekipamendu teknologiko aurreratua erostekoak, bai eta instalazio eta zerbitzuak hobetzekoak ere. Gastua horien helburua izango da proiektuaren xedeak baldintza onenetan erdiestea.**

Barrurako, ez da onartuko ibilgetuaren erosketaren emandako subentziora justifikatzeko, programaren iraupenak ezinezkoa egiten baitu bere amortizazio oso-osorik. Honez gain, ez da gomendagarri finantzatzeko diren zenbatekoengatik.

Ekipamendu informatikoa: EZ

Software: Ez da onartzen gastuaren %100a, hainbanaketa egiten da proiektuaren iraupenaren arabera.

Harremanetarako:

UPV/EHU:

Tel.: 94 601 80 08

Helbide elektronikoa: igz.deialdiak@ehu.eus

SPRI:

Tel.: 902 702 142

Helbide elektronikoa: info@spri.eus